

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Zeanuriko udal-mugarteko Barazar Gaina 123, (N-240 28 km eskuina) helbidean dagoen Barazar (Otzarreta) gasolina-zerbitzugunean sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2023-0004.

Eskatzailea: Barazar Chemicals, SL.

Barazar Chemicals, SL-k Zeanuriko udal-mugarteko Barazar Gaina 123, (N-240 28 km eskuina) helbidean dagoen Barazar (Otzarreta) gasolina-zerbitzugunean sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena eskatu du, dagoen arazketa-sistemaren bidezko tratamenduaren ondoren. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hilabeteko (1) epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Gamarrako Atea kalea 1. A - 11. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 3a

Isurketen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO